

Erruz

Detaileetan dago dena. Arantzazuko basilikan hamalau apostolu zergatik jarri zituen galdetu zioten Oteizari; ezaguna da haren erantzuna: gehiago kabitzen ez zirelako. Baina ez dakit hain ezaguna den bestea: gorago dagoen Pietatean, amaren hanketan datzan seme hila Txabi Etxebarrieta da. Beraz, bai Jose Pardinesi eskultura bat jartzea eta bai Benta Haundi eta Aduna giza kate batekin lotzeko Oteizaren keinuak, gehiago izan zen jendea pozik uzteko keinuak, giro politiko jakin bati lotua, benetako nahia baino. Konpentsazio keinu bat, nahi bada. Ez dut uste, hala ere, keinu horrek bi biktimak berdin egiten zituenik.



Jira
Xabier Gantzarain

Baina, eta orain, edo eta 2016an, zer esanahi sinboliko hartzen du keinu horrek?

Benetan gaude «biolentziaren zamtik azkenean aske gaudela ospatzeko» moduan? Zein dago biolentziaren zamtatik aske?

Izan ezin duen herri bat bai?

Nahi dena, niri dena ondo iruditzen zait, ez dut nahi ezerk eta inork ekaineko igandea bat izorratzea, eta Kilmetroak eta gisako jaietan bezala, orkestra, txotxongilo eta gisako festagiroko osagarriekin egin nahi bada giza katea, primeran, egin dezagun festa, ahaztu dezagun dena, ahaztu dezagun iragana, eman dezatela alkohola ere erruz, beharko dugu eta.

Iribarrez

Iribarrez agurtu gaitu. 4 urteko umeei administrazioak agindutako osasun azterketa egitera ikastolara etorritako medikua da, irribarretsua. Iribarre zorrotzez, lehen unetik argi utzi dit ez duela ahaleginik mendrena ere egingo euskararekin, ez nirekin —ongi, ados— ez egoera berri eta arotzean kikildu xamar sumatzen den haurarekin —ez dakit ba, *egun on, kaixo* edo *ongi?*... hurbiltze keinu txiki bat—.

Egin dit galdeketa: gaixotasun larririk izan ote duen, ondo jaten duen, txertoen egutegia... Eta, ezinbestean, honako hau: «Frantsesik hitz egiten ez duenez, espainiera eta euskara

egingo ditu, ezta?». Eta nik, tira, ba espainieraz, ulertu eta hitz eta esaldi sinpleak josi baietz, baina hitz egin, ongi, euskaraz egiten duela. Iribarrea, burla haizez.

Iribarrez eta frantses dotorez alabari agindu dio borobil bat marrazteko, oin puntetan ibiltzeko, orpo gainean, audio-metroaren kaskoak jantzi eta zarakak entzuten dituenean eskuineko eskua edo ezkerrekoa, dagokiona, altxatzeko. Agindu bakoitza alabari itzultzen saiatzen naiz ni, baina nire ondoren —eta nire gainetik— berriro esaten dio, frantsesez, irribarre tematiz. Argi dago, 4 urteko ume horrek frantsesa entzutea nahi du, ikas dezala beharrezko duela, ezinbestekoa dela. Gerra bat izan da, irribarretsua.



Bira
Idurre Eskisabel

Zuzendaria:
Martxelo Otamendi
Zuzendariordea:
Iñaki Pexarroman
Idazle arduraduna:
Andoni Alvarez
Argitaratzailea:
Euskal Editorea SM
Publizitatea: Bidera publizitatea
Lege gordailua:
SS-0662/03
Batzorde parekidea:
071284059

Egoitza nagusia:
Martin Ugalde kultur parkea. Gudarien Etorbidea, z/g. 20140 Andoain.
Telefonoa:
(0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea:
www.berria.info
Posta elektronikoa:
berria@berria.info
Publizitatea:
publi@bidera.eu
Harpidetza saila:
(0034) 943-30 43 45

Date: 09/06/2013
Expialre: 3.090
Editore: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication:
Martxelo Otamendi
Comission paritaire:
071284059
Delegation Labourd:
Lisses 3, 64100-Baiona.
Tel.: (0033) 559256220.
Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK
Araba: Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-15 04 52. Erredakzioko faxa: 945-14 83 07. Posta elektronikoa: araba@berria.info.
Bizkaia: Uribitarte kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Erredakzioko faxa: 94-423 49 75. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info.
Lapurdi: Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.info.
Nafarroa: Iratxeko Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-36 66 22. Publizitatea: 948-36 66 23. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info.

Bateragunekoak preso... politikoak!

Jon Mirena Landa

Zigor Zuzenbideko irakaslea EHU

Auzitegi Konstituzionalak (AK) 2013ko ekainaren 3ko auto biren bitartez *Bateragune* izeneko kausan preso zeudenak behin-behinean aske uzteko neurriari ezetz esan dio, batez ere, tartean diren delitu eta kondenak larriak (5 urtetik gorakoak) direla argudioari helduta.

AK-k ez zion heldu mamiari: alegia, ea ezarritako zigorrak eta kondenatutako delituak funtsezko eskubideekin bat datozen ala ez. Hori erabaki bitartean ea kartzelatik kanpo erabakiaren zain egon behar zuten kondenatuek jokoan besterik ez zegoen, hain zuzen ere beste-lan erabakia hartzeko bidean beranduegi izan zitekeelakoan, kondena osoa beteta egongo da-eta.

Mamiari heldu, ez, baina larritzat jotzen dira delituak eta hori dela-eta interesen arteko gatazka aurrean, presoaldia bertan behera ez uztearen alde egiten du AK-k. Gakoa da, ordea: hain al dira larriak tartean diren jardunak? Ikuspegi formal hutsetik, bai, baina delituen definizio eta eduki zehatzari buruzko azterketa kritikoki eginez gero, beste era batera ikus daiteke. Azter dezagun.

Entzutegi Nazionalak lehenik (2011ko irailak 11) eta Auzitegi Gorenak bigarrenik (2012ko maiatzak 7) kondenatuei etakideak izatea leporatzen die: hasiera batean ETA-ko zuzendaritzakideak eta guzti. Horretarako frogatu behar izan zuen Auzitegiak erakunde armatuarekin «lotura» zutela: erakun-

de-egituran sartuak zirela. Lotura hori egintzetan gauzatu behar da, batetik, eta, bestetik, ekintzak gauzatzeko borondatean. Jar dezagun adibide bat: norbait, ETArekin kontaktatu eta bertan sartzeko erabakia harturik, arduratzen baldin bada, modu iraunkorren, zulo batzuk sortu eta atontzeaz, bere lotura ekintza materialetan gauzatzeko ari da —zuloak atontzearena— eta, gainera, hori egiten du erakunde armatuak eskaturik eta horren probetxurako. Etakidea da, zalantzarik gabe.

Ordea, lotura «materiala» ez bada; lotura ekintza politiko, ideologikoan badatza, delituen eta ekintza politiko askearen arteko muga desagertzeko arriskua dago. Eta hori gertatu da, nire aburuz, kasu honetan. Izan ere, Bateragunea sortzea, prentsaurrekoak ematea, indar subiranisten jarduna politikoki metatzeko ahalegintzea da-eta, kondenatuek egin zuten guztia. Ezker abertzalearen esparrutik jardun politikoki hutsa zen; hori bai, auzitegiaren esanetan, «ETarentzat egina»: ETArekiko lotura, kasu honetan, ETAK nahi omen duen jardun «politiko» egitean datza, ETAK eskaturik, ETarentzat.

Alderdien Legearen «meritua» izan da ETArekiko loturaren kontzeptua mugagabe handitzea, loturaren definizioa arlo politiko hutserra ere eramenez. Hitz lodi hauek ulertzeko eta arrazoitzeko, gogoratu beharra dago, Zuzenbide Penalean Estatu Demokratikoetan muga kritikoki eta gaindiezin bat dagoela: hau da, ideien apologia hutsa ez zigortzea. Latinoek zioten moduan: *cogitationis poena nemo patitur* edo pentsatzeak ez du delituri egiten. Bestela, iritzi askatasuna eta ideo-

logia askatasuna gehiegi murrizten dira, giza-eskubideen estandarren aurka. Jarduera kriminala eta ideiak plazaratzearan artean ez badago ezberdintasun argi eta garbirik, eztabaida politiko eta ideologikoa ahultzen dira, mugatzen dira, zauritzen dira... hiltzerainoko zauriez batzuetan. Eta Demokraziak nonbaiten baldin badu bihotza, eztabaida publiko askean du: horregatik hor Estatuak ezin du eskua sartu, ezta terrorismoaren kontrako borrokaren izenean ere. Baina Alderdien Legearen bitartez hori ahalbidetu zen Estatu Espainiarrean, eta, horretarako, ETArekiko jardun politiko «osagarriaren» leloa asmatu zuten. Osagarritasun politiko bilakatu zuten delituetan parte hartzeko modu berria: delituak leporatzeko modu berria; ETArekiko lotura ezartzeko modu berria. Eta lotura berri hori oso modu zehaztugabea, mugagabea zertzelatu zuten. Estatu Demokratikoetan nekez delituztat jotzen diren hainbat jarduera (delituak ez kondenatzea, laguntza politikoa ematea helburu terroristen alde «modu isilbidezkoan»...) azterna

Alderdien Legeari esker, eta horren isla den zenbait jurisprudentzia juridiko-penalari esker, Estatuak zuzenbide penala du tresna, diskurtso ideologiko jakin batzuk zigortzeko

bilakatu dira, alderdiak legez kanpo uzteaz aparte, ETArekin lotura dagoela esan ahal izateko. Zuzenbide penalen bitartez zigortu ezin zuten ideien apologia-delituak Alderdien Legearen barruan sartu zuten. Eta, horrela, ordenamendu juridikoaren interpretazio sistemati-koaren bitartez, horren irakurketa terrorismo-delituaren interpretazio-ara ere zabaldu da. Beste hitz batzuetan: Alderdien Legearen moldeek azkenik etakide nor den erabakitze-ko balio dute, jurisprudentzia penalen bitartez.

Alderdien Legeak zirkulua itxi du, Zuzenbide Penala *de facto* handitzen. Terrorismoarentzako ekarpen materialak ez ezik, «ekarpen politikoak» egiteko prest dagoen edonor etakide izateko aukera zabaldurik gertatu da.

Premiazkoa da Alderdien Legea bertan behera uztea edo, behintzat, horren lege-aldaketa sakona egitea, batez ere legez kanpo uzteko definitzen diren aztarnak (9. artikulua) zehazteko. Zehaztasun falta delako Alderdien Legearen abusua ahalbidetzen duena. Alderdien Legeari esker, eta horren isla den zenbait jurisprudentzia juridiko-penali esker, Estatuak zuzenbide penala du tresna, diskurtso ideologiko jakin batzuk zigortzeko. Eta hori onartezina da Estatu demokratiko batean.

Atera berri garen Eusko Legebiltzarreko eztabaidaren ikuspegitik, hona hemen hausnarketarako beta eman beharko ligukeen kasua. Hemen inon baino hobeto ikusten da ETAKo presoek eztabaida orohar-tzailea antzua dela. Presoen inguru-ko balorazioak nabardurak merezi ditu, kartzelan dagoen pertsonen egoera eta egindako ekintzak oso desberdinak badirelako. Hori dela eta, ezin da berdin baloratu pertsona batzuk bere esku hil dituen ETAKidea, eta, horren aldean, ideia politiko «osagarri» bultzatze-egatik kartzelan dagoen «ETAKidea». Bateragunea sortu izanagatik kartzelan dauden kondenatuen kasuan, behintzat, nik bai, nik esango nuke preso politikoak direla, zentzu guztietan. Bai horixe!